

**BERTSOLARITZAZ
ZENBAIT XEHETASUN****I. HIZKUNTZAREN ERABILERA BERTSOLARITZAN**

Mikel Zarate zenak, "Idatz eta Mintz" izeneko ipuinean, ezin hobeki eta ezin dotereago azaltzen digu ahozko hizkeraren eta idatzizkoaren arteko aukia. Bere izpiritu euskaltzalean oso minbera sentitu zuen arazoa zen. Bizkaitarra izanik eta bizkaieraduna, bazterrak astinduz oldarka zetorren euskara batua somatzen zuen. Onerako izango ote zen zantzuak alde batetik, eta ahozko hizkerarentzat, bazterreko euskalkientzat batez ere, arriskua zerizkion haren ustez. Horrela, siamdar bikien irudiz mozorroturik, ipuin zoragarri hori idatzi zuen. Nik neuk ere hainbat gogoeta egin dut ipuin honi buruz. Batez ere ipuin honek izpirituaren dastamenera zekarkidana gogoan erabiliz.

Hemendik zuzen aurrera egitea polita liteke, baina pixka bat zeharka baizik ez dagokio izenburuari. Hari hartatik joko dut, bada. Hizkuntza eta bertsolaritza aipatzen direnean, ezin ahaztu bi adierazpide nahiko desberdin eta elkarren osagarri ditugula: ahozkoa eta idatzizkoa. Bakoitzak bere izaera eta ezaugarriak ditu.

Ahozko hizkeraren ezaugarrietariko bat arintasuna, bizitasuna da. Baita bat-batekotasuna ere. Horrela, beharrezkoa ez de-

na isilduz, elipsiak egoki eginez ari da, esaldiak guztiz biribildu gabe. Logika-senari eta arrazoibideari atxikiz, baina logikaren formak, loturak eta abar ezkutatuz. Irudi eta ideietan mugimendu oso azkarra da; batetik bestera saltoka bezala aritzen dena.

Bat-bateko sortze-lana da. Atzera-aurreraka aritzen da batzuetan, esandakoaren ñabardurak entzuleak ongi jaso ditzan. Horregatik errepikapenak ere ugari izan ohi dira, eta ez du idatzizkoa bezain ibilera trinkoa egiten.

Idatzia, ordea, askoz ere baratzagoa, geldiagoa da eta ez da inola ere bat-batekoa; erditze neketsua eta zaila izan ohi du eskuarki eta guztiok dakigu zerbait paper zuriaurrean, bakar-dadean, izan ohi dugun borrokaz. Logika eta ideiak albait ondoen lantzea du ezaugarrietariko bat. Gainera, logika edo arrazoibidearen katea adierazteko, formak, loturak, juntagailuak berariaz erabiltzen dira. Idazkera edo estiloen arabera, elipsiak ere tarteka-marteka egin arren, esaldi biribilak izaten dira, beharrezko elementuz ezezik, komenigarritz eta, askotan, apainduriaz ere hornitzen delarik. Laburdurarik ez du onartzen. Hitzak oso-osorik, desitxuratu gabe erabiltzea eskatzen du.

Ahozkoan nahiz idatzizkoan maila desberdinak daude, forma naturalagoak nahiz landuagoak eskatzen dituztenak. Idatzian ez da berdin literaturazko lan bat egitea edo gutun bat idaztea. Ahozkoan ere ez da berdin lagun arteko solasa edo hitzaldi bat egitea.

Ahozko hizkeraren barruan, bat-batean bertsotan egitea era guztiz berezia da. Sortze-lana, bat-bateko artea eta, beraz, trebetasun eta bat-bateko baliabideen erabileran erraztasun aparta eskatzen duena. Sortze-lan artistikoa denez gero, nagusiki erabiltzen den bitartekoa, hizkera, egoki eta dotore erabiltzea eskatzen du. Ikuspegi honetatik, eta bertsolaritzak izan duen aldaketa kontuan izanik, ahozko formak eta idatzizkoak asko hurbildu direla esan behar. Zergatik? Bertsolariengatik batez ere: alfabetatuak, karreradunak, gutxi-asko euskara idatziarekin kontaktua izan dutenak, batzuk idazle ere badira, maisu, kazetari

eta abar. Bertsolari gazte asko ikastolan ikasiak eta gaur egun unibertsitatean euskaraz ikasketak burutzen ari direnak ditugu.

Ikuspegi honetatik etorkizun zoragarria dugula dirudi. Baina usteak erdia ustel izaten du batzuetan. Erdal oldeak edonor harrapa dezake azpian; edo, onenean ere, bere zipristin arrotz eta mordoiloaz kutsatu. Bertsolaritza euskal esparrua dugu bete-betean. Euskaldunak du soilik barne horretara sartzeko giltza. Eta ez da gutxi, ia beste diziplina guztietan erdararen makilapean gaudenean... Horrek ez du esan nahi erdarak kutsatu gabe eta garbi dagoenik. Egia esan, guk idealizatu egin ohi dugu bertsolaritza, baina hizkeraren erabileran garbia, guk dakigula, sekula ere ez da izan: Xenpelar, Udarregi, Pello Errota, Txirrita eta abarren garaian erdarakadak bertsotan erabiltzea gauza handitzat hartzen zen, kontizu. Joan Jose Alkain "Udarregi"k ez omen zekien idazten ez irakurtzen, baina gure egunetara iritsi da harako esaera hura: "horrek erdera handia dik". Zein ote zen bietatik bertsolari hobe, Pello Errota ala Udarregi galdetzean esandakoa da, dirudienez, esaldi hori: "Udarregi hobe. Horrek erdera handia dik". Luis Mitxelenak, *OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA*n, hitz bat edo beste gomen-dagarria ez dela adierazteko, honelako edo antzeko esaldia dakar behin baino sarriago: "término usado por versolaris u otros de lenguaje poco cuidado"...

Gerra aurretik, Sabino Arana-Goiriren eraginez, euskara mordoiloa zeharo gaitzestera iragan ziren, ia garbizalekerian eroriz. Hauen aitzindari, Bizkai aldean "Urretxindorra" izan zen bertsolaritzan eta Lauaxeta olerkigintzan. Oraingo bertsolariak beste bide batetik doaz. Hori argi dago. Erdal hitz eta esapideak erabiltzeko ez dute engararik. Ez diet akats horren errua haiei soilik egotziko, gizarteko giro osoa horrelakoa baita zorigaitzez. Hala ere, bertsolariak badute horretan erantzunkizunik, hizkuntza baita beren artearen bitarteko nagusia. Hau da, hizkuntzaren erabileran hauei ezin zaie edozer barkatu. Orain isil antzean badago ere, azken txapelketa nagusiaren ondoren, kezka

larria sortu zen bertso-giroko jendearen artean eta komunikabideetan: euskara txarra... ona bertsolaritzan. Eztabaida bizia izan zen garai hartan eta ondorengo hilabete askotan ere oihartzuna izan zuen. Berrito ere, sua bezala, erraz piztu daiteke. Orduan esan zirenetatik ataltxo bat berrito ekarri nahi nuke hona, zabarkerian maiz erortzen direnak zentza daitezten. Mikel Atxagak idatzitakoa da eta honela dio:

“Bertsolaritza, hegoaldekoa jakina, gaztelaniazko kale-hizkerari ezezik erdararen moldeei ere amore ematen ari da. Hizkuntzaren inguruko hitz-joko, jolas, etorri egoki, abilezia eta abarrek liluraturik, hainbeste jende biltzen duen bertsolaritzak ere kaleko joera errazari eman dio amore, ez erdarako joerari bakarrik, baita erdal gramatikari eta zapo-hizkuntzari ere”.

Eta beheraxeago, Andu Lertxundiren hitzak bere eginez, honela diosku: “Esanguratsuak, indartsuak, labur-zaleak, sakonak, deigarriak izan nahi, eta beste hizkuntzen lustre bila jotze horrek zerbait adierazten duelakoan nago. Hizkuntza horien lustreaz gain, gure ahulezia gutxienez”.

Bertsolaritzan nabari izaten diren akatsak

Gainbegiratu batez, hiru motatako akatsak ikusten ditut:

- Bertsoaren egitura desegokia.
- Erdarakadak.
- Euskara gaizki erabiltzeaz egindako akatsak: morfosintaxia, esaldi behartuak.

a) Egiturari dagokionez, bertsoak bere xumetasunean, ongi egina eta tolestua izan behar du. Eraikuntza horrek batasuna izan behar du. Goitik behera ehoa eta landua izan arren, haria hartu eta aurrera poliki doana, mezuaren indarrak nagusia azken puntu duela.

Hor akatsak gerta daitezke: bere zatietan oreka falta, progresiorik eza, azken puntu motela. Hau da, bertsoaren interesa

gehituz joan ordeaz, itzaliz joatea. Beste akats bat, batasunik gabeko puntuak, lotu gabeko puntu solteak. Zertara datozen ez dakigula uzten gaituztenak. Hau adierazteko, harri-piloaren eta hormaren irudia ekarri zuten batzuek, eta egoki adierazten du esan nahi dena.

b) *Erdarakadak*. Inguruko hizkuntzen formak, euskarari ez dagozkionak, geure egitean gertatzen dira erdarakadak. Hau da, inguruko hizkuntzen klitxeak geure egitean. Nola antzeman noiz den erdarakada? Asko ez dira ohartuko, baina bai euskal sena dutenak. Hauei argi gorria piztuko zaie kasurik larrienetan, baina beste batzuetan ere barrua irabiatuko zaie eta bekokia zimurtuko dute...

Erdarakadak, batzuetan, oharkabeen erabiltzen dira. Beste batzuetan, jakinaren gainean, esapide indartsuak, modakoak, adierazi nahi denerako hari-harira datozenak direlakoan, eta euskaraz halako esapide hura ordezkatzeko baliabiderik ez dela uste izanik. Hau da, euskarak esapide haren baliokiderik edo parekorik ez duela uste izanik. Eta askotan izaten du. Beste gauza bat da guk ez jakitea edo jakin arren, une hartan gogora ez etortzea. Horretarako euskara asko jakin behar da. Jakin beharreko guztia dakigulakoan, zabarrak izan ohi gara. Bertsolariak, besteok ere bai baina, etengabe sakondu, landu eta aberastu behar du hizkuntza, bere artelanerako giltza du eta.

c) *Euskarazko akatsak*

- Desitxuraturiko hitzak.
- Gramatikako arauen kontrako formak.

Hitzak desitxuratzea laburdura desegokiengatik gertatzen da batez ere. Zergatik jotzen du bertsolariak laburduretara? Batzuetan ahozko hizkera normalean horrela laburturik erabiltzen direlako zenbait hitz. Forma edo erabilera horren aldeko jarrera dagoenean hitzunen aldetik, onargarria da besterik gabe: *ein* (egin); *genun*, *zenun*, *zun* (genuen, zenuen, zuen); *nekin*, *ze-kin* (nekien, zekien); bokalez bukatzen diren zenbait hitzen "a"

itsatsia galtzea: *premi, histori, kategori, kontzientzi, anai, egi, diferentzi...* Besteak beste, hauek hiztunen onarpena dutela dirudi ahozko hizkeran. Gauza bera esango nuke genitiboaren laburduraz: *aitan etxea* (aitaren etxea)...

Beste batzuetan, ordea, ahaleginik txikieneko legeari jarraiki, hizkera zainduan gaitzesten diren laburdurak egin ohi dira. Hauek ez lirateke onargarriak, ez jendaurreko hizkera landuan eta ez bat-bateko bertsoetan: *zaizkola, dizkola* eta antzeko adizkiak eta batez ere aditz nagusia eta laguntzailea bat egitean gertatzen diren hainbat laburdura desegoki: *esateiot, esateiozu, einbiagu...*

Gipuzkoa aldean batez ere, partitiboan edo *-rik* bukaera dutenetan, "a" itsatsia galtzeko joera handia dago eta hori ere ez da batere polita jendaurreko hizkeran eta bertsoetan: *dudik, kez-kik, faltik, ajolik, plantik...*

Luzatze kasuak ere gertatzen dira neurriak eraginda: *-tutzen* (-tzen); *-tikan, -rikan...* Hau ez da neurrirako soilik egiten; ahozko eguneroko hizkeran ere bai; beraz, ia euskalki oso batean hala egiten bada, onartzekoa izan beharko luke.

Gramatikako arauak hausten dituzten akatsak hainbat eratakoak izaten dira:

- Mugagabearen ordezkiz plurala erabiltzea: *bainbat herrietan* (hainbat herritan).

- **Bihurtu, bilakatu, izendatu** eta abarren osagarria forma mugatuan erabiltzea: *lurra barria bihurtu zen* (lurra harri bihurtu zen); *Jon herriko alkatea izendatu zuten* (Jon herriko alkate izendatu zuten); **egin** aditza erabilia ere berdina da: "alkatea egin dute" (herrian), baina "alkate egin dute (norbait).

- Aditzen errejimena gaizki erabiltzea: du, da, dio, zaio...: *hori ezin uko* (horri ezin egin uko); honekin loturik, komunztadura oker egitea: "zaitut"en ordezkiz "dizut": *kalean ikusi dizut* (kalean ikusi zaitut).

- "Ere" partikularen erabilera okerra: esaldi hasieran nahiz aditz jokatuaren ondoren gaizki legoke Hegoaldeko tradizioaren arabera. Esaldi hasieran erdarakada nabarmena da eta bertsotan ez dut uste inork egingo duenik. Aditz jokatuaren ondoren, Iparraldean egiten dute. Gure belarrietan gaizki ematen du: *etorri zaigu ere gure laguna* (gure laguna **ere** etorri zaigu); "etorri ere egin zaigu gure laguna" (zuzen legoke; aurrez joana zela esan nahi du).

Guztia ongi egitea nahi izaten dugu, baina aukeran, akats txikiak gorabehera, osotasun hori, harira etortzea, adierazpide eta esapideen bizitasuna bilatu behar da hizkeraren ikuspegitik.

II. BAT-BATEKO GOGOETAK EPAIMAHAITIK

Belarria zoli eta burua azkar izatea ezinbestekoa da mahaian esertzen den epailearentzat. Euskal Herri mailan diharduenean, bertsoketaren arau guztiez gainera, euskara bera eta euskalkiak mende izan behar ditu; Bizkai mailan, berriz, euskara batua eta bizkaiera. Euskara eta euskalkiak mende izate hori hitz larria da. Hau da, gure hizkuntzaren gurpilean asko ibilia, zaildua, eskarmentuduna izatea ezinbesteko ez bada, behintzat komenigarri bai. Sen berezia izan beharko luke, esaterako, esamoldeak, esapide jatorrak eta badaezpadako den guztia bereizteko. Bata onesteko eta bestea gaitzesteko. Beraz, paperen bat edo titulu-txoren bat izateak, besterik gabe, ez du egiten bat epaimahaian esertzeko gai.

Lantxo honetan, dena dela, epaile on baten handi-handikako argazkia ez baina haren barne-egoeraren deskripzio labur bat egin beharko nukeela uste dut: zer dabilen haren burmuinetan, haren sentimendu-taupadak, bertsoak entzun ahala haren barnealdean zer gertatzen den. Eta ez da erraza, ez. Hurbilegi dugu barne-ispilu hori, geureegia da eta korapilotsuegia hitz idatzien moldean isuri ahal izateko...

Barruko ispilu horretara begira hasi orduko, ingurukoaz ere hitz bat edo beste esan nahi nuke. Epaileak, bere egitekoa ongi bete ahal izateko, inguruko zertzeladak bere alde izan beharko lituzke. Esaterako, mahaiaien kokapena, akustika eta abar. Lehendik ere oso zaila den zeregin honi ez zaio, ahal dela, beste eragozpenik gehitu behar. Nik neuk, epaile-mahaian esertzean, horixe izan ohi dut lehen kezka: erosotasun hori, ingurumari egoki hori izatea, garbi entzutea, oihartzunik eta zarata arrarorik ez izatea, epaileak elkarrekin hitz egiteko eran izatea. Badakizue edozein txapelketatan sortu ohi dela zer edo hura komentatu beharra edo zalantzaren bat argitu beharra... Zertzelada hauei dagokienez, alde handia izaten da txapelketarik txapelketara. Goi-mailako txapelketetan gauza hauek hobeki eraturik izan ohi dira. Tekniko onak, puntuazioa emateko beren-beregi presaturiko paperak, batuketak egiteko idazkaria... Zertzelada horiek bere alde izanez gero, epaileari asko errazten zaio bidea eta bereaz arduratzea besterik ez du izango.

Baina horren ondoren datorrena ez da edozer... Bai, badakit bertsolariarena astunagoa dena. Jendetza izugarria hark zer esango adi-adi dagoela, airera irten behar, bat-bateko hitzezko jolasera. Ni neu haien lekuan banengo, tripak ere irabiatuko litzazkit... Dena dela, mahaian esertzen denak erantzunkizun larria du. Txapelketan asko da bertsolariak jokatzeko duena: izen ona, jendearen aurrean ongi gelditzea, bertsotarako plazak izatea...

Txapelketari kirol-garra, joko-usaina kentzen ahalegindu dira norbaitzuk. Baina txapelketak bere izaieran du hori guztia. Lehia, norgehiagoka aritzea, batzuetan biziago eta beste batzuetan motelago agertuko da, baina hor dago. Ez, ez da hil edo bizikoa. Jarduera kultural bat da, baina bat-batekoa eta elkarren lehian egitekoa izanik, intentsitate gori-goria hartzen du une batzuetan, bai bertsolarien aldetik eta bai entzuleen aldetik. Giro horri erantzun behar dio epaileak. Hau da, saiatzen ari den bertsolariari, era berean erantzun behar dio epaileak. Egin due-

nari ez dio ezer kendu behar, ezta egin ez duenari eman ere. "Nori berea da gizalegea".

Orain dela gutxi, eskolarteko txapelketaren Bizkaiko finalean, epaimahaiko batek honako hau zioen: "tresnaren bat ez ete dabe asmatuko bertso-epaitzea zehatz-mehatz egin ahal izateko?" Zeregin latza iruditu zitzaion, kontizu...

Ez, tresna magikorik ez dugu, baina epaile bakoitzak, bere ja-kinduria eta gustuen arabera, bertsokera ideal edo ereduzko baten zirriborroa du buruan. Bat-bateko bertsogintzaren eskema estetiko hori adierazgaitza da. Euskal Herriko txapelketarako txostenak egin izan dira, epaileek buruan duten hori ahalik eta objektiboen bihurtu eta paperean gauzatu nahirik. Paperean landu ohi diren irizpideak, onenean ere, helduleku batzuk baidizik ez dira. Gero, txapelketa hasten denean, hortik oso gutxi izaten da gogoan. Benetako orduan, epaile bakoitza erdi baka-rik izango da bere barruko eskema eta iritziekin. Hori hartzen du neurritzat. Beraz, epailea ere nola edo hala bertsotan ari da bere kautan. Isilean, bertsolariak kantatu ahala, puntuz puntu jarraituko dio, haren bertsoa jaso, gustatu, haztatu eta bere estetikaren parametroetara ekarriz. Adi-adi eta bertso-saioan guztiz murgildurik egon beharko du, xehetasunik ez galtzeko.

Bertsolariak kantatu ahala, errimadun hitzak jasotzen ditut nik paperera eta entzun berri den bertsoaren egitura berregiten laguntzen dit horrek. Bide batez, markatxo batzuk ere ezarten ditut... Horretara, segundo batzuetan, handi-handikako iritzia gauzatzen du epaileak. Baina lauso artean agertzen den uste hori zenbaki zehatz eta matematiko bihurtzea ez da erraza. Zailantza ugari izan ohi du azken egitada horretan. Baina dudamudatan egoterik ez dago. Huts edo bete, zirt edo zart egin behar da. Hor huts egiteak min ematen du benetan. Hurrengo egunean, moldeko letretan bertso zoragarri bat agertzean eta zuk ez zenuela hainbestean ederretsi gogoratzean, min hartzen da. Eta bestetara ere bai: hau da, bete-betea asmatu duzula ohartzean, egundoko poza. Bertso txarrak ia beti harrapatzen

dira; bertso bikainak ere bai; on samarrak eta erdizkakoak izan ohi dira puntuatzeko zailenak. Horregatik, huts egiteko beldurak eraginda, epaileen notarik gehienak 5,5 / 6 / 6,5 / 7... hor ibiltzen dira.

Epaileak jende serioa eta hotza direlako iritzia nahiko zabal dago. Hala ere barruan bakoitzak bere bihoztxo du eta oso minbera izan ohi da kritika zakarren aurrean. Zaztada mingarri egiten zaizkio, batez ere kexa edo kritika zuzenak ez direnean. Lan hau, gainera, oso zaila eta esker txarrekoa da. Ez da, berez, desiragarria. Presioak ere izan ohi ditu epaileak, baina guztia gainditu eta zuzen jokatzeari ezinbestekoa du.

Hona, irakurle, neure barne-egoera pixka bat arakatzuz, epai-mahaitik zuretzat eginiko gogoeta batzuk. Amen!

Luis Baraiazarra Txertudi